

GUGGENHEIM BILBAO

Prentsarako txostena



Ikusgai martxoaren 1ean

June Crespo. Baskularra

GUGGENHEIM BILBAO

June Crespo. Baskularra

- Datak: martxo 1–ekain 9, 2024
 - Komisarioa: Manuel Cirauqui
-
- June Crespok eskulturaren arloan egiten duen lanak elkarrizketa eraldatzailea ezartzen du azken hamarkadetako euskal artea markatu duten kontzeptuekin. Baina, aldi berean, gaur-gaurkoak diren gaiei ere heltzen die, tartean sentsibiltate feminista eta ekosistema naturalen gainean mundu industrializatuak eragindako krisiaren kontzientzia.
 - Cresporen lanak sarritan hartzen ditu ontzien edo eraikuntzako egituren zati antzemangarriak, besteak beste bidoiak, zementuzko kofratuak edo zingilek eutsitako burdinak. Eta, *Baskularren*, loreen eta landareen zurtoin eta zati birdimentsionatuak gehitzen ditu, dinamismo handiko multzoetan antolatuta.
 - Berriki sortutako lan-sorta batekin batera, erakusketa Cresporen ekoizpen berriaren inguruan egituratzen da, erakusketari izena ematen diona. Bertan, Cresporen lan ugaritan behin eta berriro agertzen diren alderdiak elkartzen dira, esaterako argazki-irudien erabilera eskultorikoa edo arkitektonikoa, eta ekoizpen industrialeko euskarrien erabilera. Bi kasuetan, espazioan zehar ugaldutako forma begetal, tubular eta zilindrikoen euskarriak dira.
 - Erakusketak honek bertan bildutako lan guztien arteko transmisioak iradokitzen ditu, ontzi komunikatuak eta sare kapilarrak balira bezala jardunez. Izan ere, proiektu honetan, artistak espazioarekin duen harremana birplanteatzen du eta ezohiko eskala batean berraztertzen du bere lana.

Guggenheim Bilbao Museoak *June Crespo. Baskularra* aurkezten du, Europako egungo panorama artistikoan nabarmentzen hasia den June Cresporen (Iruñea, 1982) lanari eskainitako erakusketa anbiziotsua. Bertan, Crespok berriki egindako lan-sorta bat jarriko da ikusgai, baita eskala handiko eskultura-multzo bat ere, Museoko erakusketa-guneetako baterako propio sortua. Espazioari zein kontzeptuari dagokienez, aurkezpen hau inflexio-puntutzat har daiteke Crespok orain arte izandako erakusketen historian.

June Crespok eskulturaren arloan egiten duen lana nahita kokatzen da ikerketa-ildo garaikide askoren bidegurutzean. Alde batetik, elkarrizketa eraldatzailea ezartzen du azken hamarkadetako euskal artea markatu duten kontzeptuekin: “pare mugikorrak” eratzen ditu, esaterako, abstrakzioa eta keinua, tragikotasuna eta opakutasuna, arintasuna eta arrotasuna. Era berean, duela gutxi arte eztabaida handietatik kanpo zeuden gaiak aztertzen ditu, bereziki sentsibiltate feministari eta bizimodu modernoak naturaren errealitatera ekarri duen suntsipenaren kontzientziari dagokienean, kontuan hartuta produkzio- eta erreproduktzio-ziklo industrial eta postindustrialek bai eta Antropozenoaren abrasioek zeharo menderatu dutela dagoeneko natura.

GUGGENHEIM BILBAO

Cresporen obran, lan konplexuen eragile gisa agertzen dira materialak, eta elkarri eragiten diote ensanblajeetan. Horregatik, askotan, ontzien edo eraikuntza-egituren zati antzemangarriak agertzen dira; funtzionalitate industrialaren mundua gogorarazten duten elementuak dira, esaterako, bidoiak, zementuzko kofratuak edo zingilez eutsitako burdinak. Erakusketari izena ematen dion *Baskularra* (*Vascular*) lan-multzo berrian, lore eta landareen zurtoinak eta zatiak ere agertzen dira, birdimentsionatuta eta multzotan antolatuta, eta dinamismo handia erakusten dute zintzilikatuta. Nahiz eta Cresporen eskulturak sarritan giza gorputzen proportzioa hartzen duen abiapuntutzat —lurrarekiko altuerari, hedadurari eta harremanari lotuta— Guggenheim Bilbao Museoko 105 aretorako egin duen erakusketa-proposamenak aurreko lanen eskala aldatzen du, metamorfosi maila berri batera eramateko. Crespok materialei eta piezen keinuari ematen dien kutsu bizi eta enpatiko hori, hain zuzen, *Baskularra* erakusketa-proiektuaren oinarrian dago. Hala, proiektua artistaren obrari buruzko ikuspegi bat emateko asmoz aurkezten da Guggenheim Bilbao Museoa eta, aldi berean, gaur arte bere praktikan ezagutu ez den hedapena aztertzeraz gonbidatzen du. June Cresporen eskulturek elkarrengandik oso bestelakoak diren elementuak biltzen eta nahasten dituzte —landare, arropa edo oihal aurkituetatik ateratako moldeak, eraikuntzako piezak, tartean adreiluak edo totxoak, hagaxkak eta prentsa— eta, horrela, kontraste handia azpimarratzen dute bizitako, askotan are kaltetutako materialaren eta gure existentzia inguratu eta bideratzen duten egiturazko elementuen —hodiak, txapak, moldeak edo kofratuak— artean. Haiei zurtoinak itsasten zaizkie, edo oihal-zatiak edo paperak erantsita geratzen zaizkie junturretan. Tenkagailuz elkartuta edo besterik gabe elkarren gainean jarrita, elkarri galde egiten dioten elementuak dira.

Azken zazpi urteetako hogeita hamarren bat lanekin batera, *June Crespo. Baskularra* erakusketa ekoizpen berri baten inguruan egituratzen da; azken horretan bat egiten dute Cresporen sail ugari behin eta berririo biltzen dituzten formek, keinuek eta galderak. Horren adibide izan daitezke argazki-irudien erabilera eskultorikoa edo arkitektonikoa, zoruko inprimaketa handi bihurtuta; edo ekoizpen industrialeko eta eraikuntzako euskarrien presentzia —lan-mahaiak, plataforma jasotzaileak, etab.—, zeinek ez duten rol autonomo bat betetzen, eskultura-multzo batentzako rol funtzional bat baizik, bi kasuetan forma begetalak, tubularrak eta zilindrikoak espazioan zehar ugaltzeko euskarri gisa. Keinu eta galdera horien arteko talkak aukera ematen du ikerketa material eta formal berriak garatzeko eta dimentsio monumentaleko espazio bati heltzeko, bertan harreman-ildo ugari antolatu daitezkeenez gero. *Baskularra* erakusketak June Cresporen pieza bakoitzaren barneko komunikazioa eman nahi du aditzera, nahasteen, substantzia urtuen, garbiketen mundu likido eta jariakorra azpimarratuta. Baina, era berean, proiektuan sartutako obra guztien arteko transmisioak iradokitzen ditu, ontzi komunikatu eta sare kapilar gisa dihardutenak. Horrela sortu da artistak berak espazioarekin duen harremana birplanteatzeko eta bere lana ezohiko hedapen batean berraztertze xede duen proiektu hau.

Izen bera hartu duen erakusketarako propio sortutako eta ekoiztitako instalazio berriari hainbat eskultura-sail gehitzen zaizkio, ildo posible bat markatzen dutenak artistaren ibilbidean zehar. Erakusketan piezak taldekatzeko irizpidea ez da izan ez kronologikoa, ez nominala, ez zenbakizkoa, baizik eta lan horiek espazioan duten kidetasuna, haien intentsitate komuna eta ahaidetasuna kontuan hartuta. Hala, triangulazioak iradokitzen dira *Baskularra* (*Vascular*, 2024) sail berriaren eta beste lan batzuen artean, nola diren *VSCHC* (2023), *Beloak* (*Veils*, 2022), *Acts of Pulse*, 2022, *Dividual* (2022) eta *Banoa, bai* (*Voy, sí*, 2020), besteak beste. Eta hori guztia lanen aurrekari indibiduala desegiteraino. Zentzu horretan,

GUGGENHEIM BILBAO

baskularitate bat dago gainera, alderdi morfologikoa gainditu eta egitura-mailei eragiten diena eskulturaren praktikan.

Biografia

June Crespo (Iruñea, 1982) Bilbon bizi da eta bertan egiten du lan. Arte Ederretan lizentziatua da Euskal Herriko Unibertsitatean (2005), eta *De Ateliers* (Amsterdam) egonaldi-programan parte hartu zuen 2015 eta 2017 artean. Bere bakarkako erakusketen artean hauek nabarmentzen dira: *Vieron su casa hacerse campo* (2023) CA2M, Móstoles; *Acts of Pulse* (2022) P420, Bologna; *entre alguien y algo* (2022) CarrerasMugica, Bilbo; *Am I an Object* (2021) PA///KT (Amsterdam); *Helmets* (2020) Artium, Gasteiz; *Voy, sí* (2020) Ehrhard Florez, Madril; *No Osso* (2019), *Uma Certa Falta de Coêrencia*, Porto, besteak beste. Berriki, taldeko hainbat erakusketatan ere parte hartu du: *L'Écorce*, CRAC-Alsace 2023; *The Milk of Dreams*, Veneziako Bienaleko pabiloi nagusia, 2022; *Fata Morgana*, Jeu de Paume, Paris; eta *El sentido de la Escultura*, Fundación Miró, Bartzelona.

KATALOGOA

Erakusketarekin batera, *June Crespo. Vascular* argitalpenak berak ere planteatzen du materialen hedapena. Horien artean, artistaren ekoizpenaren egunkariko oharra nabarmentzen dira; dokumentu argitaragabea, bere metodologiaren eta azken bi urteetan ekoizpen berriarekin batera egin duen ibilbide existentzialaren testigantza. Artistaren egunkariari Miren Agur Meabek idatzitako ziklo poetiko bat gehitu zaio, baita Jara Rocha aktibista eta teoriarariaren eta Manuel Cirauqui komisarioaren bi saiakera kritiko ere.

DIDAKTIKA

Didaktika proiektuaren baitan, Museoak hezkuntza-guneak diseinatzen ditu EDP Fundazioaren babesarekin, eta erakusketen jarduera osagarriak antolatzen ditu, obrak balioesten eta ulertzen laguntzeko. Oraingoan, *June Crespo. Baskularra* erakusketaren Didaktika *online* formatuan gauzatuko da, Museoaren webgunean erakusketari dagokion ataleko *Ba al zenekien?* sailaren bidez. June Cresporen ibilbideaz gain, atal horrek bideo bat hartuko du, eta, bertan, materialen aukeraketak eta prozesuak berebiziko garrantzia duten bere eskultura-lanaren funtsezko ideiak azalduko ditu artistak.

Hezkuntza-jarduerak

Inaugurazio-hitzaldia (otsailak 28)

June Cresporen eta Manuel Cirauquiren arteko elkarriketa, azken hori erakusketaren komisario eta Guggenheim Bilbao Museoko arte-arduraduna.

Hausnarketa partekatuak

Bisita hauek erakusketa berriari buruzko ikuspegi desberdinak eskaintzen dituzte, erakusketarekin lotura duten Museoko profesionalen eskutik:

- Arte-arduradunen ikuspegia (martxoak 1): Manuel Cirauqui, erakusketaren komisarioa eta Museoko arte-arduraduna.
- Funtsezko kontzeptuak (apirilak 17): Luz Maguregui Urquiza, Hezkuntzako koordinatzailea.

GUGGENHEIM BILBAO

*Babeslea: Fundación Vizcaína Aguirre

... **bidelagun** (maiatzak 10)

Izaskun Alberdi biologo eta ilustratzaile zientifikoak erakusketan zehar gidatuko duen ibilbide honetan, June Cresporen eskulturen forma organikoetan dauden elementuak ezagutuko ditugu, tartean zurtoinak, hodiak edo dermisak. Erakusketak ikuspegi eta begirada desberdinetatik bisitatzeko aukera paregabea.

Sormen-saioa. Ilustrazio zientifikoa eta artistikoa (maiatzak 16)

Saio honetako parte-hartzaileek behaketarako duten gaitasuna hobetu ahalko dute marrazkiaren bidez. June Cresporen lanen anatomia ardatz hartuta, Izaskun Alberdi biologo eta ilustratzaile zientifikoak errealitatea aztertzen lagunduko die, baita behaketa hori paperera eramaten ere.

Performanceak: Amaia Urra eta Ion Munduate (maiatzak 25)

Eskulturaren eta performancearen arteko adarkadurak eta ontzi komunikatzaileak arakatuz, Amaia Urra eta Ion Munduate *Baskularra* erakusketarekin eta June Cresporen ikerlanarekin hartu-emanean arituko dira beren ekintzen bidez.

Mugimendu teknikarako sistema kontzientea (maiatzak 31)

Saio honetan, pentsamendu kontzientetik abiatuta eta gorputzen mugimenduaren bidez nork bere buruarekin konektatzeko praktika bat ekarriko digu Felicitas Estévez adituak. Gozatu zure gorputzaz, espazioaz eta mugimenduak eragindako sentazio eta emozioez. Museoko Atrioan egingo da jarduera, *Baskularra* erakusketaren eta Museoaren Wellbeing programaren baitan.

Azaleko irudia

June Crespo

Baskularra (5) [*Vascular (5)*], 2024

Altzairuzko txapa malkodun kurbatua eta alfonbrak

150 × 300 × 293 cm

Artistaren eskaintza

© June Crespo, Bilbo, 2024

© FMGB Guggenheim Bilbao Museoa. Argazkia: Erika Barahona Ede

Informazio gehiago:

Guggenheim Bilbao Museoa

Komunikazioa eta Marketina saila

Tel: +34 944 359 008

media@guggenheim-bilbao.eus

www.guggenheim-bilbao.eus

GUGGENHEIM BILBAO

Prentsak erabiltzeko irudiak
June Crespo. Baskularra
Guggenheim Bilbao Museoa

Prentsarako online irudien zerbitzua

Museoaren webguneko prentsa-eremuan (prensa.guggenheim-bilbao.eus/eu) erregistratzeko aukera duzue bai erakusketen bai eraikinaren bereizmen handiko irudiak eta bideoak deskargatzeko. Oraindik konturik ez baduzue, erregistra zaitezke eta behar duzuen materiala deskargatu.

Dagoeneko erabiltzaileak bazarete, sartu erabiltzaile-izena eta pasahitza. Horrela, zuzenean deskargatu ahal izango dituzue irudiak.

- Ematen diren irudiak *June Crespo. Baskularra* erakusketarekin zerikusia duen publizitate editorialerako soilik erabili behar dira. Erakusketa 2024ko martxoaren 1etik ekainaren 9ra bitartean egongo da publikoarentzat zabalik.
- Irudiak osorik erreproduzitu behar dira, mozketarik, gaininpresiorik eta manipulaziorik gabe. Erreproduzioekin batera datu hauek adierazi behar dira: artistaren izena, obraren titulua eta data, jabearen kreditua, copyrighta eta argazkiaren kreditua.
- Online argitaratutako irudiek babestuta egon behar dute segurtasun-neurri elektronikoen egokien bitartez.
- Irudi orok 1.000 pixeleko bereizmena izan dezake gehienez, alderik luzeenean. Fitxategiak online argitalpenean txertatuta egon behar du, eta ezin izango da deskargatu.
- Irudiak ezin zaizkio hirugarren bati transferitu, ezta datu-base batera ere.
- Azaletarako irudien erabilerak kostu bat izan dezake, eta alde zuzenetik behar da obraren jabearen eta copyrightaren titularraren baimena.

Informazio gehiago nahi izanez gero, jar zaitezte harremanetan Guggenheim Bilbao Museoaren Prentsa-eremuarekin +34 944 359 008 telefonoan, edo posta elektronikoko helbide honetan: media@guggenheim-bilbao.eus

June Cresporen erretratua
Argazkia: Carlo Favero



June Crespo

Multzo Baskularra (1) [*Conjunto vascular (1)*], 2024

Brontze galdatua, altzairuzko txapa malkoduna, mahaia eta altzairuzko egitura

265 × 716 × 270 cm

Artistaren eskaintza

© June Crespo, Bilbo, 2024

Irudia © FMGB Guggenheim Bilbao Museoa, Argazkia: Erika Barahona Ede



GUGGENHEIM BILBAO

June Crespo

Multzo Baskularra (1) [*Conjunto vascular (1)*], 2024

Brontze galdatua, altzairuzko txapa malkoduna, mahaiak eta altzairuzko egitura

265 × 716 × 270 cm

Pieza amaitugabearen xehetasuna

Artistaren eskaintza

© June Crespo, Bilbo, 2024. Argazkia: Ander Sagastiberri



June Crespo

Baskularra (5) [*Vascular (5)*], 2024

Altzairuzko txapa malkodun kurbatua eta alfonbrak

150 × 300 × 293 cm

Artistaren eskaintza

© June Crespo, Bilbo, 2024

Irudia: © FMGB Guggenheim Bilbao Museoa, Argazkia: Erika Barahona Ede



June Crespo

Back of the Tongue, 2022

Altzairu galdatua eta oihala

90 × 100 × 83 cm

Bilduma pribatua, San Rafael, Mexiko

© June Crespo, Bilbo, 2024. Argazkia: Ander Sagastiberri



June Crespo

No Osso (occipital), 2021

Erretxina akrilikoa, buztina, epoxi mastika eta oihala

48 × 46 × 136 cm

Bilduma: Gherardo Biagioni, Florentzia

© June Crespo, Bilbo, 2024. Argazkia: Carlo Favero



June Crespo

Am I an objetc, 2022

Poliesterrezko eta beira zuntzeko erretxina eta lo-zakua

62 x 35 x 185 cm

Bilduma: MV

© June Crespo, Bilbo, 2024. Argazkia: Ander Sagastiberri



GUGGENHEIM BILBAO

June Crespo

Chance Album (Queen), 2016

Poliuretanozko erretxina, metala, aldizkariak, kristalezko edalontziak eta lore lehorrak

140 × 6,5 × 300 cm

Bilduma: Museo Centro de Arte Dos de Mayo, Madril

Erakusketaren ikuspegi partziala, etHall, Bartzelona

© June Crespo, Bilbo, 2024. Argazkia: Juande Jarillo



June Crespo

No Osso, 2019

Oihala, latexa eta kobrea

56 × 41 × 100 cm

Artistaren bilduma

© June Crespo, Bilbo, 2024. Argazkia: Ander Sagastiberri



June Crespo

Titulurik gabea, 2022

Argizaria, brontzea eta zeramikazko estaldura

64,4 × 115 × 58 cm

Alkar Contemporary Collection (ACC), Bilbo

© June Crespo, Bilbo, 2024. Argazkia: Ander Sagastiberri



June Crespo

Titulurik gabea (Eta zure urratsak entzuten ditut honantz etortzen) [*Sin título (y escucho tus pasos venir)*], 2018 / 2024

Eskailera, altzairuzko leiho-profila eta egitura, aluminio galdatua, zeramikazko estaldura, eskaiola, silikonazko eta erretxina akrilikoazko modea, zingilak eta oihala
202 × 360 × 110 cm

Bilduma: Michael Jenkins eta Javier Romero

© June Crespo, Bilbo, 2024. Argazkia: Jonás Bel



June Crespo

Beloak (Negua) [*Veils (Winter)*], 2022

Brontzea, altzairu hedoilgaitza, zeramikazko estaldura eta oihala

243 × 106 × 70 cm

Alkar Contemporary Collection (ACC), Bilbao

Norbaiten eta zerbaiten artean erakusketaren ikuspegi partziala, CarrerasMugica, Bilbo

© June Crespo, Bilbao, 2024. Argazkia: Ander Sagastiberri

